

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Hernialde



Aurkibidea

Udalerria: Hernialde

Sarrera



Hernialde Gipuzkoako Tolosaldea eskualdeko udalerria da. Hirugarren Gerra Karlistan famatu izan zen Santa Kruz, udalerri honetan aritu zen apaiz. Herriaren izena Ernio menditik dator, "Ernio alde"tik hain zuzen. Alkiza, Anoeta eta Tolosa ditu udalerri mugakide. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 352
- **Euskaldunak:** %78,22

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **63**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **63**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Joxe Garro Otegi (1927)



Joxe Hernialdeko Ezkamendi baserrian jaioa da. Baserrian egin izan du beti lan, eta baita basoan ere, nahiz eta aldi berean Tolosako Guadalupe paper-lantegian lan egin, hogeita hamar urtez. Handik hartu zuen erretiroa.

Juan Joxe Imaz Mujika (1919)



Hernaldeko Galardi baserrian jaioa, zazpi senidetan bigarrena da Juan Joxe. Gurasoak ere Hernaldekoak bertakoak zituen. Baserrian lan egin izan du beti, sorotan, ganaduarekin... Tolosara sarri-sarri joan ohi zen, egurra saltzera gehienbat. Eta Donostiara ere bai, perretxikoak saltzera. Baina bidaiarik handiena, dudarik gabe, soldaduskan egindakoa da. Izan ere, hemezortzi urte bete berritan eraman zuten gerrara Juan Joxe, 1937an, eta zazpi urtez ibili zen soldadu gisa. Aragoan, Katalunian, Andaluzian... Ostera, ordea, Hernaldera itzuli zen, jaiotetxera, eta geroztik han bizi izan da beti.

Maria Dolores Izagirre Otamendi (1936)



Hernaldeko Erretiro baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Bidaniakoa. Etxean lan asko egitea suertatu izan zaio txikitatik. Ama gaixorik eduki zuten, ohean, denbora luzez, eta bera arduratu zen etxeko martxa eramateaz, oraindik umea zela. Ondo gogoan du nola jaisten zen Tolosara esnea saltzera, marmitak eroriko ote zitzaizkion beldurrez. Gaztaroa garai gogorra izan zen beretzat. Besteak igande arratsaldetan festara joaten ziren bitartean, etxean lanean gelditu behar izaten zuen berak. Orain, Villabonan bizi da.

Eleuterio Izagirre Tapia (1925)



Hernaldeko Sagasti baserrian jaioa da Eleuterio. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, lasartearra, Makazane baserrikoa. Baserrian egin izan du lan beti, sorotan, esnetan, egurretan... Ez omen zituen bidaia gutxi egin Hernaldetik Tolosara, eta baita Donostiara ere. Eta Hernaldeko taberna zeraman aguazilak, haserrealdi batean, herria utzi zuenean, Eleuteriok hartu zuen bere lekua. Hala, pixkanaka-pixkanaka ardura gehiago hartuz, Eleuterio herriko aguazil, enterradore eta epaile lanetan aritu zen urte askoan.

Joxepa Sarobe Olarra (1920)



Hernialdeko Igortxiki baserrian jaioa. Sei senideko familia zen beraiena, eta hamalau urte zituela Tolosako Santa Maria atzeko kale-etxe batera joan zen neskame. Han zela hasi zen gerra, eta bere anaia soldadu eraman zutenean, Tolosatik jaiotetxera itzuli zen, hamasei urterekin. Hernialden bada "Palazioa" esaten dioten etxe bat, berez Toki Alai izenekoa, eta Joxeparen amak han jardun zuenez neskame gisa lanean, etxe hartakoek Joxepa joan zedin eskatu zuten, eta halaxe joan zen bertara lanera. Han ezagutu zuen bere senargaia, Urdanbidelusaundi baserrikoa, eta bertara ezkondu zen. Geroztik bertan bizi izan da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Herriko festak

- **Hizlaria(k):** Imaz Mujika, Juan Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** HRA-001/041
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:09:03. **Bukatu:** 01:10:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
 - Aisia » Kultura » Dantza
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Gerratik bueltan herriko festetara joaten ziren. Asteasuko bat ttun-ttun jotzaile izaten zen eta dantzasokan ere ibiltzen ziren. Baltsean berriz, ezin. Beste solaskide batek parte hartzen du.

Transkripzioa

- Ta goguan dazkazu baita're Hernialdeko festak adibidez nola izaten zian, zuk han gerratik bueltatutakon, ze festa klase izaten zan Hernialden?
- Juan Joxe: Han nabillela?
- Ez, ez, zu etorritakon, behin bueltatuta, festetan-ta ez ziñan ibili?
- J.J.: A, etorritakon, bueno, gu hantxe, tiriki-tarraka, besten modun-eo segi. Hor ibiltzen giñan, Herniyoa zala ta...
- Ze festa klase izaten zian? Hemen Ama Birjiña egunian?
- Andrea: Ama Birjiña egunian.
- J.J.: Bai, bai, ttuntun jotzaillek eta eskutako soñuba're bai ta, izaten zian. Bai.
- Zein etortzen zan o?
- J.J.: Asteasuar[...], zeak, ttuntun jotzaillek, asteasuararak.
- Andrea: Behintzat ttuntun bi etortzen zian, txistuba ta zean. Gero dantza-soka're izaten zan. Sueltua. Agarratua ez zan...
- J.J.: Ez, joiño!
- Baltzen ibilli ezker kongregaziotik fuera!

- Andrea: Bai, fuera.
- Zuei´re esaten zizuen hoi? Mutillei pakeago utziko zizuen.
- J.J.: Bai, bai, guk ez...

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Urkiolako abenturak

- **Hizlaria(k)**: Imaz Mujika, Juan Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: HRA-001/046
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:20:10. **Bukatu**: 01:21:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Urkiolara joan behar izan zuten batean bizitako abentura kontatzen du.

Transkripzioa

- Juan Joxe: Bai, zeara, Urkiola jun behar genun, ezta?
- Andrea: A, bai, bai. Ba... bueno, hoi ezkondu ta gero zan.
- J.J.: Bai. Urkiolaa jun behar genun. Ta autobusa hemen zala, Amezketatikan zeara, Urkiolakua. Ta ez dakit nola enteatu giñan, behintzat bi plaza o hiru o lau, lau bai, [...] lau baziala ta hemendik Alegria oiñez jun ta han hartu ta bueltakon Alegrin utzi giñuen ta berriz oiñez etorri Alegritan, in genun.
- Andrea: Bai, oain baiño hanka hobek genduzkan.
- J.J.: Bai, Amezketako autobusa.
- Andrea: Amezketakua bai.
- J.J.: Ta Amezketatikan ta...
- Andrea: Zubeldia
- J.J.:Ta lau...
- Andrea: Zubeldiatarrak behintzat.
- J.J.: ... lau, lau plaza bazarela, ta... ez dakit nondik enteatu giñan, Goienetxekok seguru asko, ta oiñez Alegria.
- Oain esan behar gaztei: "Segi zazue, segi zazue oiñez".
- Andrea: Hoi ba, hoi ba.
- J.J.: Mekauen.
- Andrea: Hoi ba.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita eta ama, biak Hernialdekoak (HRA-001/002)

Zazpi senide ziren: bost arreba eta bi anai. Horietan bigarrena zen Juan Joxe. Aita Galardi baserrikoa zen eta ama Ezkamendikoa, biak Hernialdekoak.

2. Txikitatik baserri lanetan (HRA-001/003)

Txikitan amak kafesnea eta zopak ematen zizkien eta ondoren baserriko lanetan hasten ziren. Behiak orraztea ez zuen gogoko, baina hala ere egiten zuen. Ukuiluko lanak egin ondoren gosalduta egiten zuten berriro lanari ekin aurretik. Basoko lanetara edo sorora joaten ziren.

3. Hotz izugarria eta arropa txarrak (HRA-001/004)

Eguraldi hotza egiten zuen batean, segara joan eta belarra izoztu egin zitzairen. Juan Joxek 12 urte zituen eta ezinean negarrez hasi omen zen. Orduan ez zuten gaur bezalako arropa onik.

4. Lan ezberdinak urtaroen arabera (HRA-001/005)

Mutil koskorretan galtza motzetan ibiltzen ziren, baita neguan ere. Negu osoa berdina pasatzen zuten, orbeletan. Udaberrian berriz lur banatzeak izaten ziren. Lur banatzeak zer ziren eta lurra nola prestatzen zuten azaltzen du. Behiaren adar ondoetan eskuak berotzen zituzten.

5. Hernialdeko eskola eta Tolosako gau-eskola (HRA-001/006)

Eskolara oso gutxi joaten ziren. Sasoi batean Tolosako gau-eskolara joan zen eta lau erregelak ikasi zituen. Maisua esku motza zela gogoratzen du. Hernialdeko eskolan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Maisua, don Luis, euskalduna zen.

6. Igandetako planak (HRA-001/010)

Igandetan goizeko mezara joan ondoren pilota-saioa egiten zuten. Ondoren, etxera joaten ziren lanak egitera. Arratsaldean ez zegoen siestarik, bezperetara joan behar izaten zuten. Igandetan ez zen dantzarik izaten.

7. Pilotan igande arratsaldetan (HRA-001/011)

Elizaren paretan edo kontzeju azpian aritzen ziren pilotan. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Txokoka edo partiduak jokatzeko ibiltzen ziren.

8. Gerra hasi zenean, politikaz gutxi zekiten (HRA-001/016)

Gerra hasi zenean, nafarrak zetozeela esan zuten. Arratsaldean belarra biltzen ari zirela enteratu ziren. Ezer ez zekitela azpimarratzen du. Txapel gorriak Hernialdera iritsi ziren, Montezkuetik barrena.

9. Soldaduak tiroka inguruko mendietan (HRA-001/017)

Menditik zetorrela, balak bota zizkioten eta tartean pasa zen. Montezkuetik botatzen zituzten tiroak. Inguruko mendi guztiak nafarren esku zeuden.

10. Gerra hasi zenean, ez zuten beldurrik (HRA-001/018)

Nazionalak Tolosan sartu zirenean, ez zuten pentsatu inork ezer egingo zienik, eta horrela izan zen. Bazter batean pistola bat aurkitu zuen Juan Joxek, eta erreketek bati eman zion. Bere etxean ez zuten ideia politikorik.

11. Erreketeak Hernialden (HRA-001/019)

Hernialden erreketek ibili ziren. Ez zuten beldurrik ere sentitu. Erreketeak inguruan ibiltzen ziren trintxerak eta egiten.

12. Gerrara 18 urte bete ondoren (HRA-001/023)

Hemezortzi urte zituela, gerrara joan behar izan zuen. San Jose egunean, Lizarrara eraman zuten eta oso gaizki pasa zuen. Ondoren, Donostiara bidali zuten, Loiolara. San Isidro egunean, Teruelera eraman zuten; eta handik Lleidara, zortzi hilabetez. Han trintxerak egiten ibili zen; eta, geroago, alde egin behar izan zutenean, zauritu egin zen. Zortzi hilabete pasa zituzten nazionalak ibaiaren alde batean zirela, eta gorriak beste aldean.

13. Gerran pasatako gorabeherak (HRA-001/024)

Bere batailoian, gehienak euskaldunak ziren; horregatik, erdaraz ikasi gabe gelditu zen. Zortzi hilabete geroago, Katalunia erori zen. Gorrien aurkako eraso batean lanean ari zirela harrapatu zituzten, eta gauza guztiak bertan utzita alde egin behar izan zuten.

14. Bonbardaketak gerra garaian (HRA-001/025)

Hegazkinen bombardaketak ere bizi zituen, baina salbatzea lortu zuen. Nazionalen hanka-sartze batengatik egindako bombardaketa azaltzen du. Hildako animaliak lurperatzen ere ibili behar izan zuten.

15. Gerran egindako lagun bizkaitarrak (HRA-001/026)

Gerran, ez ziren haserretzen, ez eta protestarik egiten ere. Gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ziren. Elkarrekin ongi konpontzen ziren. Bizkaitar batek erdaraz hitz egiten zion berak ikas zezan. Muxikako laguna aipatzen du.

16. Euskararen inguruko eztabaidak gerra garaian (HRA-001/027)

Tolosakoa euskararik hoberena zela esaten zutenez, eztabaidak sortzen zirenean, tolosar bati galdetzen zioten; askotan, Juan Joxek konpontzen zituen eztabaida haiek. Berak esandakoarekin konforme gelditzen omen ziren.

17. Extremadura eta Andaluzian gerra garaian (HRA-001/029)

Extremadura eta Andaluzia osoan ibili zen gerra amaiera iritsi bitartean. Gerra bukatu zenean, Jaenen zegoen. Hango herri batean, Ubedan, ezer ez erosteko eskatu zien nagusiak, arriskutsua zelako.

18. Ubedan gerra garaian (HRA-001/030)

Gerra garaian, Ubedan (Jaen, Andaluzia), bertakoek kantatzen zien abestia gogoratzen du.

19. Zazpi urte soldadu (HRA-001/031)

Gerra garaian, Ubedan (Jaen, Andaluzia), gaua frontoi batean pasa zuten, hotz izugarriarekin. Handik beste herri batzuetara joan ziren eta argi ibiltzeko eskatu zieten. Gero Malagara joan ziren, eta sei hilabetez Alhaurin de la Torren egon ziren, ezer egin gabe; Sevillan, beste bi urte eta erdi. Denera zazpi urte pasa zituen gerran.

20. II. Mundu Gerra zela eta berriro mobilizatuta (HRA-001/032)

Gerran lizentziatu ondoren, berriro mobilizatu zuten II. Mundu Gerra zela-eta. Donostiako Loiolan egon zen bi urtez. Aiako Harrian Gaztelu bidean dagoen errepidea Juan Joxe eta beste batzuk ibili ziren egiten.

21. Donostiara estropadak ikustera (HRA-001/033)

Gerra aurretik Donostiara urtero joaten ziren estropadak ikustera eta ondoren Lezora ofrenda egin eta bazkaltzera.

22. Ezjakintasuna gerra garaian (HRA-001/034)

Gerra garaian, Lleida inguruko herriak ezagutu zituen. Gauza handirik pentsatu gabe pasa zuten gerra, ezer jakin gabe. Bizkaitarrak argiagoak zirela pentsatzen du, Bizkaian gerra ikusita joan zirelako.

23. Loiolatik Hernialdera egunero (HRA-001/035)

Gerran lizentziatu ondoren, II. Mundu Gerrarako berriro mobilizatu zituztenean, egunero etxera itzultzzen ziren Donostiatik. Bidaia trenez egiten zuten eta horrelako batean kartera harrapatu ziotela kontatzen du.

24. Denbora luzea etxetik kanpo (HRA-001/036)

Espainiako Gerra Zibilaren ostean, II. Mundu Gerrara deitu zituztenena, Castillo del Inglés deiturikoan egon zirenean, asteen behin etortzen ziren etxera. Gerra denboran, lau urte behintzat egin zituen etxera itzuli gabe.

25. Denbora luzea etxetik kanpo (HRA-001/037)

Zortzi egunez behin etxera itzultzzen zirenean egonaldia luzatzen saiatzen ziren. Horrela bi urte pasa zituzten.

26. Zazpi urte soldadu (HRA-001/038)

Gerrako kontuak etxean askotan kontatzen zituzten, baina etxekoak ez ziren politika kontuetan sartzen. Zazpi urtez egon zen gerran, eta denbora luzea egin zitzaion.

27. Euskaldunek izen ona zuten armadan (HRA-001/039)

Ofizialekin oso ongi konpontzen zen. Enkarguak egiten ibiltzen zen; eta, bereziki, ofizialen tabakoarekin zigarroak egiten. Kargu baten laguntzaile izan zen denbora luzez. Euskaldun asko ibiltzen omen ziren horrelako lanetan. Euskaldunek fama ona omen zuten.

28. Txikitatik lanean; baserriko produktuak saldu egiten zituzten (HRA-002/003)

Bederatzi urte zituela Tolosara esnea eramaten, egurra ebakitzen eta horrelakotan hasi zen. Egurra txikitu ondoren gurdiekin eramaten zuten saltzera. Barazkiak ere saldu egiten zituzten. Behin amak gaztainak basoan bildu ondoren saltzera zeramatzala Guardia Zibilak gelditu eta kendu egin zizkion.

29. Azokara egunero, esnea eta barazkiak saltzera (HRA-002/005)

Ettxeko janariak jaten ziren. Egunero babarrunak jaten zituzten bazkaltzeko. Goizean taloa esnearekin. Taloa izateko etxean artoa egin behar izaten zen. Kaleko jendeak okerrago pasatzen zuen. Etxe guztietatik kalera esnea saltzera joaten ziren. Tolosara egunero joaten ziren. Ama Tolosara joaten zen saltzera eta Eleuterio eta arrebak ere bai.

30. Baserriaren jabea Markesa zen eta hamar mila duro ordaindu behar izaten zizkioten (HRA-002/006)

Baserriko jabea hamar mila duro ordaindu behar izaten zizkioten. Elorrioko Markes de Tolari ordaintzen zioten. Markesak jabetza asko zituen inguruan. Halako batean etxea salgai jarri zuen baina ezin izan zuten erosi, dirurik ez zuten eta. Amak etxebizitza bat erosi zuen Donostian. Baserria beranduago erosi zuten.

31. Argia beti ezagutu du Hernialden (HRA-002/008)

Eleuteriok betidanik ezagutu du argia Hernialden. Indarra Asteasuko zentraletik etortzen zen. Beranduago bertako hiru baserrik sortu zuten indarra. Argiak indarra gutxiago zuen. Gero kontadoreak jarri zituzten.

32. Arrebak familia izaterakoan argia bota zuteneko kontua (HRA-002/009)

Arrebak familia izan zuteneko istorioa kontatzen du: Larramendi medikua Tolosan zegoen eta bila joan zitzaizkion. Medikua iluntzean oinez ekarri zuten eta zentralera joan behar izan zuten argia bota zezaten.

33. Ura iturritik ekartzen zuten (HRA-002/011)

Iturria baserritik hirurehun metroetara dute. Iturria beti ezagutu du eta handik etxeetara ura eramaten zuten. Emakumeek buru gainean suila jartzen zuten ura ekartzeko. Etxeetara ura beranduago sartu zuten.

34. Hernialdeko bost auzo daude (HRA-002/013)

Oloza bailara, San Miguel, Txingurri, Enparantza eta Goi bailara dira Hernialdeko bost auzoak. Herrikoen hainbat izengoiti ere aipatzen ditu.

35. Gerra hasierako oroitzapenak (HRA-002/015)

Gerra hasi zenean, 11 urte zituen. Leaburu aldean tiro hotsak entzuten ziren. Jende askok alde egin zuen, beldurtuta. Familiakoek egun haiek nola pasa zituzten kontatzen du.

36. Erreketeak dantzan Hernialdeko plazan (HRA-002/019)

Hernialden erreketeak zeudenean, Ziriakok soinua jo eta besteak dantzan ibiltzen ziren. Denek txapel gorria eramaten zuten. Armatuta ibiltzen ziren. Tiro-hotsak entzuten zituzten gerra hasieran.

37. Hernialdetik alde egin behar izan zuten batzuek gerra hasieran (HRA-002/020)

Hernialdekoen bizimodua ez zen aldatu gerra hasi zelako, baina batzuek alde egin behar izan zuten.

38. Eskolan erabat erdaraz egiten zuten (HRA-002/021)

Gerra hasi zenerako Eleuteriok eskola utzita zeukan. Eskolan erdaraz hitz egiten zien eta ez zuten ezer ulertzen. Maisua Zaragozako zen. Orduan dena erdaraz egiten zen eskolan. Eleuteriok beste lagun batzuk asko lagundu zioten.

39. Maisuak eta apaizak umeak jotzen zituzten (HRA-002/022)

Maisuak makilarekin jotzen zituen. Apaizak ere bai. Dotrina apaizak erakusten zien. Erdaraz ez zekiten eta ezin ulertu ibiltzen ziren.

40. Garai batean aitormenaren sakramentua nolakoa zen (HRA-002/023)

Oraingo apaizak egin zuen azken sermoia aipatzen du. Orain Eliza asko aldatu da. Aitormenaren sakramentua nolakoa izaten zen kontatzen du. Gaur egun edozeinek daki apaizak baino gehiago.

41. Apaizei errespetua eta opariak (HRA-002/024)

Lehen apaizari errespetu handia zitzaion. Apaizak nola janzten ziren azaltzen du. Berorika hitz egin behar zitzaion. San Joan egunean arrautzak ematen zitzaizkion apaizari, etxea bedeinkatu ondoren.

42. Kandela eta erramu bedeinkatuak soroetan jartzeko (HRA-002/025)

San Jose egunean apaizak bedeinkapena ematen zuen. Erramua ere bedeinkatzen zen eta hura norberak gurutze baten antzera soroan jartzen zuen. Gurutze hari kandela bedeinkatuaren tanto pare bat botatzen zitzaion.

43. Hernialdeko festetako ospakizunak; dantzasokan neska mutilak (HRA-002/026)

Hernialdeko festetan meza, etxafuegoak eta kanpaia bueltakoa izaten ziren. Ama Birjinaren egunean Meza Nagusia ospatzen zuten. Meza hartan alkateak leku berezia izaten zuen. Gero kontzejuan hamaiketakoa eta alkatearen etxera bazkaltzera joaten ziren. Arratsaldeko bosten ttuntuna izaten zen. Ilunabarrean dantzasoka egiten zuten, aurreku modukoa. Dantza hura nolakoa zen azaltzen du.

44. Hernialdeko epaile eta lurperatzaile izan zen (HRA-002/028)

Eleuterio Hernialdeko epaile izan da. Lan hura zer zen jakin gabe onartu zuen. Gauza asko ikasi zituen. Berrogei bat urte zituen epaile izendatu zuten garaian. Postu hartara nola iritsi zen kontatzen du. Ehorzle lanetan ere ibili da. Bere lehen entierroa gogoratzen du.

45. Lurperatzeak eguzkiari begira egin behar dira (HRA-002/029)

Tolosan istripuz hildako baten ehorzketan zuloa eguzkiari begira egin behar zela esan zioten. Lurperatzaile lana ere ikusiz ikasi du.

46. Ama eskolatik bota zuten alpargatarik ez zuelako (HRA-002/033)

Eleuterioren amak ez zuen eskolarik. Lasarten bizi zela alpargatarik ez zuelako eskolatik etxera bidali zuten. Amaren familiakoek ez zuten eskolarik baina ez ziren tuntunak.

47. Espainiako erregea eta Franco Foru Aldundian ezagutu zituen (HRA-002/035)

Eleuterio Foru Aldundira joan zen batean Juan Carlos erregea ezagutu zuen. Franco ere bertan ezagutu zuen. Francori buruz hitz egiten du. Franco Donostiara zihoala Tolosa erditik pasatzen zen.

48. Tolosara eta San Blas auzoko festetara astoz joaten ziren (HRA-002/036)

Garai batean Hernialdetik Tolosara astoz joaten ziren. Egunean bi bidai ere egin izan ditu. Kandelario egunean Tolosako San Blas auzoko festetara joaten ziren. Lagun batekin joan zen batean gertatutakoa kontatzen du.

49. Tolosan etxez etxe egurra partitzen (HRA-002/038)

Egurra zakuetan sartuta asto gainean eramaten zuten Tolosara. Han etxez etxe partitzen zuten.

50. Baserriko sukaldea nolakoa zen (HRA-004/002)

Garai batean baserria nolakoa zen azaltzen du. Su baxua zaukaten. Pertza kate batekin zintzilika egoten zen suaren gainean.

51. Sukaldeko mahaia eta janariak (HRA-004/003)

Mahaia igo eta jaitsi egiten zen. Sei ume ziren eta amona ere etxean bizi zen. Umeak beste mahai batean bazkaltzen zuten baina janari berdina izaten zen denentzat. Normalean babarrunak izaten zituzten. Jaietan berriz, garbantzuak. Aza ere izaten zuten eta salda ere batzuetan. Gauzak ez ziren gaur bezalakoak.

52. Umetako gosariak eta afariak (HRA-004/004)

Gosaltzeko taloa eta esnea edo esne-zopak izaten zituzten. Arrautzen bat edo urdai pixka bat ere izaten ziren batzuetan. Gauean patatak porruekin edo perrexilarekin.

53. Baratzean denetatik zeukaten (HRA-004/006)

Garai batean baratzean nolako produktuak izaten zituzten kontatzen du. Baratzean amak eta aitak egiten zuten lana eta umeek ere laguntzen zuten. Amona egunero Tolosara joaten zen saltzera, astoa kargatu ondoren. Oinez joaten zen. Normalean dena saltzen zuten. Ez zegoen tranbiarik. Eguerdirako itzultzen zen.

54. Esnea etxez etxe partitzen zuten Tolosan (HRA-004/007)

Esnea etxez etxe saltzen zuen amonak Tolosan, eta, sobratzen bazitzaion, azokara joaten zen. Etxeetan esne asko erosten zen garai hartan. Etxe haietako batzuk gogoratzen ditu.

55. Gerra hasiera Tolosan (HRA-004/009)

Gerra hasi zenean, Joxepa Tolosan zegoen, Santa Maria plazako etxe batean neskame. Etxeko leiho batetik Uzturre mendia ikusten zen; eta, tiroak zirela-eta, leihoetan koltxoiak jartzen ibili ziren. Jesusen Bihotzari kandelak piztu zizkiotela ere gogoan du. Beldurra pasa zuten. Tolosa soldaduz bete zen. Haietako bi etxean izan zituzten. Etxean borondatez hartu zituzten. Soldaduak erdaldunak ziren.

56. Erreketeak eta "Margaritak" (HRA-004/011)

Gerra hasi zenean, etxera itzultzeko gogo zuen, baina lana egin beharra zegoen. Etxekoekin harremana mantentzen zuen, igandetan joaten zen eta. Hernialden erreketeak egon zirela gogoratzen du. "Margaritak" deitzen zituzten emakume batzuk ibiltzen ziren erreketei laguntzen. Hernialdeko mutil bat gerran hil zen.

57. Hernialdeko "palazioan" neskame (HRA-004/013)

Hernialdeko "Palazioan" Hernialdeko hiru ahizpa bizi ziren. Joxepa haien neskame bezala hasi zen lanean. Etxeko andrea oso sukaldari ona zela gogoratzen du. Jende asko ibiltzen zen etxe hartan. Udar alemanak ere iristen ziren bertara.

58. "Palaziora" ura nola eramaten zuten (HRA-004/014)

Garai batean "Palazioa" beste modu batean zegoen antolatuta, obra asko egin dituzte inguruan. Lehen tutu baten bitartez ura eramaten zuten iturritik "Palaziora". Etxe gehienetan ez zuten urik.

59. "Palazioko" nagusiak eta bisitak (HRA-004/016)

"Palazioan" neskame zegoeneko kontuak kontatzen ditu. Arratsaldero bisitak izaten zituzten. Etxeko andrea laboreak egiten egoten zen beti, asko gustatzen zitzaion. Herriko jendearekin harremana zuten. Etxeko andrea oso dotore joaten zen elizkizunetara. Bisitak Tolosatik edo Donostiatik etortzen zitzaizkien.

60. Hernialdeko eskola (HRA-004/018)

Hernialdeko eskolako maisua erdalduna zen. Oso gutxi joan zen eskolara. Aurretik egon zen maisua, Andres Otxoa, oso gogorra zela zioten. Gero maistra donostiarra etorri zen, eta Joxeparen etxean lo egiten zuen. Garai batean eskola Kontzejuan zegoen, eta neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

61. Tolosako "enseñanzetan" ikasi zuen (HRA-004/019)

Hamabi urte zituela Tolosara joan zen ikastera, "enseñantzeta". Bertan bi hilabete besterik ez zen ibili. Gehienak uniforme zeramaten baina Joxepak ez. Han dena erdaraz hitz egiten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com